

EUSKARA NONDIK DATOR?

Juan Uriagereka katederaduna da Maryland-en EEBBetan dagoen unibertsitatean. Euskal Herrian ere ezagutzen dute batzuek Hizkuntzalaritza irakasten eta azertzen du unibertsitate horretan. 'The Wall Street Journal' egunkariak lelokeria batzuk idatzi zituenean 2007an anbiolako hizkuntzei buruz (horien artean euskara), 'El Diario Vasco' egunkarian lantxo argitsu bat idatzi zuen. Ikasle xume bezala bere hitz batzuk gogoratu behar ditut. '¿Qué quiere decir que una lengua, el vasco o cualquier otra, sea retrograda? [...] Pero en cualquier caso no tiene nada que ver con una implicación de que una combinación de estructuras sea más o menos avanzada, en ningún sentido, del mismo modo que un animal que ha cambiado relativamente poco en su estructura a lo largo de evolución (digamos el tiburón, cuyo origen se remonta a unos doscientos millones antes que el de los dinosaurios) no puede estar mal adaptado a su medio si ha sobrevivido hasta ahora (o si no, que cualquier simio se enfrente de tú a tú con un tiburón en el agua). Claro que a los periodistas normalmente se les escapan estas sutilezas, y se centran más en cosas que (creen que) entienden como las palabras'. (D. Vasco, 11-11-2007)

Beste izenburu batzuk aitatu behar ditut egunkari berdinetik hartuta. 'Los vascos éramos vascos ya en Africa hace 70.000 años'. (D. V., 14-07-2012). 'Bardeak eta Sumeria' izenburupean liburu baten berri ematen du kazetariak: 'No hallarás la vida que buscas. Gilgamesh y la épica antigua'. Li-

buru horretan ‘glosario zabal bat [dago] non esplikatzen duen nola Sumeriako hitz asko eta askoren oihartzunak ditugun Europako zenbait hizkuntzatan eta baita euskaran ere’. (D. V., 7-05-2017) ¿Los gascones? Vascos romanizados. ¿Los vascos? Gascones sin civilizar’. (D. V., 13-05-2012). ‘Araba lehen alaba’. (D. V. 28-05-2017). ‘Paleosardiniera eta euskara senide hurbilak izan daitezke’ (D. V. 3-06-2017). ‘Estoy convencido de que el euskera y el ibérico son la misma lengua’ esaten du Eduardo Aznar Martínez jaunak. Bere burua antropologo eta ikertzaile bezala aurkezten du. Orain arte ez dago inor iberierako brontze eta katilu zatietako idazkiak itzuli dituenik euskararen bitartez. Antonio Tovar jauna ez zen kirolaria, ez bestelako ikuskizunen izar bat, baina anbiolako hizkuntzei buruz zerbait bazekien. Tübingengo unibertsitatera, Alemaniara, deitu zuten irakasle lanetan. Hango sistema irakasleak aukeratzeko guztiz serioa da, eta Hizkuntzalaritza Erkatua, Tovarren gaia izan zen. Lurralde horretan sortu zuten, hein handi batean, eta batez ere garatu zuten Hizkuntzalaritza erkatua. Hurbilago, ez dakit jaun honek K. Mitxelenaren ‘Fonética histórica vasca’ liburuaren azala ikusi duen, edo beste lan batzuetan idatzi zituenak. Tovar jaunak Salamancako unibertsitatera deitu zuen. Biok Filologia klasikoa ikasi zuten, Tovarrek Madril, Berlin eta Parisen, eta Mitxelenak urte benetan ilunetan Madrilen. Intersarean ikus daitezke bion biografia laburrak eta bibliografia. Eta zehaztasun gehiago nahi ezkerro, ‘Koldo Mitxelena’ liburutegian, Donostian, Euskaltzaindiaren liburutegian, Bilbon, eta ‘Sancho el Sabio’ edo EHUko liburutegian, Gasteizen. Biek eta beste aditu askok guztiz baztertu dute iberiera euskararen ama denik. Erketaren legeak jarraituz, ez du inork lotura hori aurkitu. Eta ezta iberiar testu baten itzulpena egin euskaratik. Ez dakit zergatik, baina Euskal Herri honetan, legendak, ipuinak eta urlia baten asmakizunak ontzat emateko ohitura badago egon, bai euskarari buruz, eta bai

beste gai batzuetan. Eskerrak txanponen administrarietara ez direla irizpide horretakoak!

Lehengo egun baten nire ezagun batek esan zidan hizkuntza erromanikoak ez datozala latineratik. Eta beste batek, kristau erlijioa Konstantino enperadoreak eta Laktanzio eta Zesareako Eusebiok sortu zutela. Beraz J. A. Pagola jaunak aipatzen dituen seiheun edo gehiago ikerlari eta irakasleren lana laburbiltzen duena, 'Jesús. Aproximación histórica' liburuan, alperrik galdutako lan, diru eta papera da. Horietako gehienak iparraldeko hemisferioko unibertsitate handietan ikerlari eta irakasleak dira, eta antza denez, unibertsitate horietan, denpora eta dirua legendak aztertzen xahutzen dute. Adibide biek, gure arteko kultura maila ere adierazten dute. Beste kontu bat da sinisgabea izatea. Nazaretoko Jesusek ez zuen inor behartu bere doktrina onartu eta jarraitzeko. Gauza bat Jesusen Jainkoagan ez sinistea da, eta beste bat, agiritan, hizkuntzan, eta arkeologian ziurtatuta dagoena, ukatzea, norbere kultura maila agerian utziz.

Sarri samar entzun dut lurralde aurreratu eta aurrerakoi baten bizi garela. Urte honetako ekainean froga batzuk ikusi eta jasan ditut. Taberna baten aurrean honelako iragarkia ikusi dut: 'Euskararen misterioa'. Solasaldi afaria, hizlariaren izena, tokia, ordua eta prezioa. Donostiako auzo baten izan zen eta Euskal Herriko mapan, euskararen galeraren mugak agertzen ziren. Hizlariak lantxo batzuk idazten ditu komunikabideetan, baina ez Hizkuntzalaritza erkatuari buruz. Eta misterio hori argitzeko, inork argitzen baldin badu, zutabe biren arteko erkaketa derrigorrezko eta beharrezkoa da.

Oraingo zutabea behar da eta parean orain mila urte eta oraindino lehenago erabiltzen zen euskeraren zutabea, baldin badago. Euskeraren kasuan, ez dago orain 2000 urteko testu, hitz idatzirik edo ahaidetasuna duen hizkuntzarik. Gure zoritxarrerako ez daukagu garai horietako idazkirik lan honeta-

rako behar den neurrian. Zutabe bietan bokal bakoitzak izan duen garapena lehendik oraingo euskarara erkatu behar da. Bokalak aztertu behar dira hitz hasieran, hitz barruan, eta hitz amaieran. Eta kontsonante bakoitzarekin, lan berdina burutu behar da, kontuan hartuta alkarketak, nolako forma berriak sortzen dituzten. Eta oraindino behintzat ezin da lortu, zutabe zaharra falta dalako. Dauden testu labur batzuk Mitxelenak bildu zituen 'Textos arcaicos vascos' liburuan. Hortik kanpo, CIL delako bilketan agertzen diren izen batzuk badute antza euskal hitz batzuekin. Mitxelenak eta Gorrochategui jaunak aztertu dituzte. Gure zori txarrerako ez da agertu bestelako materialik idatzita, pergamino baten, adreilu baten edo hilarri baten. Agian norbaitek Marconik egin nahi zuena lortzen badi, arazoa konpon daiteke. Marconik uste zuen antxinako hitz mintzatuak, haize uhinak izanik, inguruko haizean daudela. Eta tresna bat asmatu nahi zuen, hitz horiek harrapatzeko. Berak batez ere Jesusen hitzak harrapatu gura ei zituen, fededuna izanik.

Erkatzaile asko daude Euskal Herrian nonbait, baina nik ez ditut ikusten aipatuta hizkuntzalaritzaren bibliografietan. Horregatik ulergarria da euskaltzain oso batek, 'freaky' deitzea gure artean agertzen diren sasi erkatzaile batzuei. Nik liburu bat behar izan dut beste batzuekin batera, lantxo bat idazteko. Egilea Hans Arens da. Izenburua: 'La lingüística'. Itzulpena da eta Madrilen Gredos argitaletxeak atera zuen 1976an. Donostian, unibertsitate bateko liburutegian bazegoen, baina eraikuntza berri bat jasotzen ari dira, eta Bilbora eraman dute liburutegi nagusi osoa. Beraz bi edo hiru urtetan han bilatu beharko dira liburu horiek. Beste liburutegi ezagun batera joan nintzen. Han bazuten liburu hori. Hasi nintzen irakurtzen, eta tomo baten 6-7 orrialde zuriz aurkitu nituen, imprimategiko hutsa zutelako. Esan zidaten bezala zuzenketak eskatzeko orria bete nuen. Hau beste liburu batekin gertatu zitzaidan, eta zuzendu zuten. Eta oraingoan ere egun batzuk

itxaron, eta okerra zuzendu zuten. Badut bestelako esperientzia bat ere. Liburutegi horretan, norbaitek liburu bat beste nonbaiteko apalera eraman zuen. Berria lortzen lagundu nien, atzerrian argitaratuta dagoelako. Hirugarren liburutegi ezagun batera joan nintzen. Hasi nintzen begiratzen liburua, eta 1. tomoan orriak ondo ebakita zeuden. Baina bigarren tomora, antza denez ez da iritsi irakurlerik, eta imprimategitik etorri zen bezala, orririk gehienak ireki gabe daude. Ni gazte nintzeanean Erteuropako hiriburu baten bizi izan nintzen. Unibertsitateko liburutegia goizeko 7etan irekitzen zuten, eta gaueko 12etan itxi. Eta nahikoa nuen nire atzeritar txartela, liburuak atera eta etxera eramateko. Hemen liburutegien ordutegia samurragoa da. Antza denez 'Industria 4.0' ez da iritsi materiala ez den kultura esparrura. Agian noizbait iritsiko da.

Hasierako kazetari batzuen esaldien azpian galdera bat dago: Nondik dator euskara? Erantzuna lortzeko, orain ezagutzen dugun euskararen aurreko hizkuntza, edo hobeto esanda, aldaki hori nolakoa zen jakin nahi da. Hori izango litzateke protoeuskara edo nolakoa zen euskara, Xtoren aurretik eta 1000. urtera bitartean. Arazo handi bat dago horretarako. Euskara hizkuntza isolatua da. Ez da agertu orain arte behintzat, antza duen beste hizkuntzaren bat bera ere. Hego Amerikan 1000 hizkuntza inguru daude eta horien artean, 80 isolatuak dira, ez dute beste inorekin ahaidetasunik. (Alain Fabre I, 40. orrialdean). Eta antzekoa gertatzen da Ozeanian. Uharte osatutako kontinentea da, eta uharte bakoitzean hizkuntza bat edo gehiago dute, gutxi gorabehera.

Hizkuntzek badute historia eta aurre historia. Historia ezagutzeko zutabe bi behar dira: bat, oraingo hitzen zerrenda. Eta bi: orain 10 gizaldi, 20, edo gehiagoko hizkuntza horien ahaidekoak, erkaketa lana burutzeko. Indoeroperan adituek sartzen dituzten hizkuntzak Xtoren aurretik 4000tik 2000. urtera doaz.

Hitz kopurua erkaketa egiteko.

Gutxienez mila hitz edo gehiago erkatu, eta hortik atera daiteke nolako legeak jarraitu dituen hizkuntzaren garapen horrek. Hitzak esaten dudanean, izen, aditz, izenondo, aditz-ondo eta egiturak horiek denak perpaus baten elkartzeko esan nahi dut. Erkaketa horrekin ordutik honako garapenaren legeak ateratzen dira. Beti beharrezkoa da garai zaharreko hitzen lekukotasuna. Baina hizkuntzaren garapenaren legeak jarraituz, berreraiki daiteke, inon idatzita agertzen ez den forma bat. Izartxo bat jartzen zaio aurrean, Schleicher-ek hasi zuen ohitura jarraituz. Horrek esan nahi du forma hori ez dela inon ere agertu idatzita, baina gaur daukagun emaitza ikusita, derri-gor egon zela noizbait. Adibide bat: euskalki desberdinetan ‘arrain’ hitza agertzen da. Erkaketarako euskarak dituen le-geak erabiliz, Mitxelenak esaten du, *arrani forma zaharrago bat egon zitekeela. Oraingo euskalki desberdinetan, sudurkari bat /n/ agertzen da. Beraz horren sustrai den formak ere sudurkari bat eskatzen du. Aurre historia lortzeko oraingo formatik erkaketaren legeak jarraituz iritsi daiteke forma zaharra-goa berreraikitza. Baina beti bide bakarra erkaketa da, hizkuntza baten lege fonetikoak jarraituz eta hizkuntzalaritza erkatuaren arauak zuzen beteta. Gainera garai zaharreko kultura eta bizimoldeak ere ezagutu behar dira. Donostiako auzo baten badago kale bat Leosineta (Leosiñeta). Ez dauka zeri-kusirik lehoiekin. Garai baten hemengo baratze batzuetan lihoa erein eta haria egiten zen. Horretarako lihoa beratu behar zen osinetan. Beraz lio+osin+eta, osin multzotxo zegoelako nonbait lihoa beratzeko. Eta tokiko hizkerak –i– biren arteko disimilaketa bat eskatzen zuen. Gainera badakigu XIX. giza-l-dian eta XX.aren hasieran Erreterian ehungintza fabrika bat bazegoela. Gaztelarako beste adibide bat jarriko dut. Erromatarren garaian etxe aurrean plaza txiki bat eraikitzeko ohitura zegoen. ‘Ante-ostium’ zuen izena. Herri latineran *ant(e)ustianu deitzen zuten. Hortik sortu zuten ‘anteuzano’ gaztelera za-

harrean, eta hortik ‘antuzano’. Eta plaza hori goi samar zegoelako, herri etimologiak atera zuen ‘altozano’. (Menéndez Pidal, 1968, 191-192). Beraz ez dauka balio handirik, erkaketa 20-50 hitzekin egiteak.

Lege fonetikoaren mitxelena hitzetan honela deskribatzen da: ‘una ley fonética resume un proceso histórico para nosotros, cumplido en los sonidos de una lengua, cuyos puntos de partida y de llegada señala como jalones. Indica como se ha dicho, un camino irreversible que se ha recorrido en un sentido determinado. Y este proceso, y a esto apunta la palabra ‘ley’, es un cambio regular que ha afectado a un sonido de una manera determinada, dondequiera que éste ocurriera. Es esta propiedad de los cambios fonéticos, su regularidad, la ‘generalidad intensiva’ de Coseriu, la que es esencial para la reconstrucción, no el carácter ciego –de ciega necesidad– de la regularidad.’ (L. Michelena, 1963, 65). Mitxelena konturatu zen ez zegoela orain 2000 urteko hitz zerrendarik euskaraz, baina bai, garai baten geroago hartu zituen maileguak. Eta gainera hitz berdina erkatu zitekeela, euskalki desberdinetan. Horien denen multzoa izan zen ‘lehengo’ zutabea deitu daitekeena. Eta horien parean, forma garaikideak jarri eta hasten da ‘jokoa’ Mitxelena hitzetan: ‘La construcción comparativa será –si se quiere– un juego, pero todo juego tiene sus reglas y nadie hallaría en él el menor placer si pudiera jugarlo a capricho. Me refiero, claro está, a la regularidad de los cambios fonéticos, regularidad que debe siempre mantenerse como primer postulado –con las restricciones que la experiencia nos va enseñando–, tanto si se trata de la lengua vasca como de cualquier otra’. (Fonética histórica vasca, 1990, 14-15).

Protohizkuntzaren definizio bat The. Bynon hizkuntzalariak ematen du: ‘Una protolengua no es otra cosa que una construcción teórica, ideada para unir por medio de reglas los sistemas de lenguas históricamente emparentadas, de la forma

más económica' (Lingüística histórica, 105). Hori lortzeko orain arte bide bakar bat dago: berreraiketa. Berreraiketa metodoa aditu batzuen ikerketa lanekin eta ahaleginez sortu den sistema bat da, eta gaur onartuta dago arlo horretan dabilzan hizkuntzalarien artean. Baina beti hitz kopuru handi bat behar da, ez 25-50 hitz. Eta inguruko hizkuntzak ere ezagutu behar dira. Mitxelenak akitaniera, eta iberiera aitatzen ditu. Eta gainera latinera eta herri latinera, eta besteren baten ondakinak ere agertzen dira (axuk > azoka, esaterako). Antxinako onomastikan, adituek aitatzen dituzte batzuk: Andere, Beles, Bihoxus, Cison, biosildun, Halcotarris, Harbelex, Iliberri Ilunno, Nescato, eta beste mordotxo bat. Iberiatar biztanle batzuk gaurko Euskal Herrian eta inguruan bizi izan ziren, eta harremanen batzuk izango zituzten, salmentak egiteko.

Beraz protoeuskara lortu nahi baldin bada, orain 2000 urteko euskal hitz mordoa beharko genuke. Eta erkaketa hori burutzen da bokal bakoitzak izan duen garapena, euskara zaharretik gaurko euskarara. Eta kontsonante bakoitzarekin berdin. Eta kontsonante multzoek nolako garapena izan duten. Gainera azentuaren eragina ere aztertu behar da. Lan honen zailtasuna ulertzeko, Mitxelenaren 'Fonética Histórica Vasca' liburuauren aurkibidea astiro begiratzea beharrezkoa da. Bestela izartxo betetako hitz mordoa lortuko dugu bakarrik, forma hipotetikoak diralako. Pozgarria eta aberasgarria izango litzateke euskararentzat, milatik gora hilarri edo katilu zati agertuko balira garai horretako izen, hitz edo toponimoak idatzita dituztela. Esaterako ,adar' hitza ,dardara' hitzetik sortu zutela esatea hipotesi hutsa da, garapen fonetiko eta erkaketaren legeak zuzen beteta ere.

Erkaketa metodoa batez ere XIX gizaldian landu zuten batez ere Erteuropan. Bidea ireki zuten hizkuntzalari batzuk konturatu zirenean Europako zenbait hizkuntzen sustraiak Ekialdetik etorritako herriek ekarri zituztela. Indoerupeera horren barruan hizkuntza mordo bat zegoela aurkitu zuten Er-

teuropako ikerlariek: sanskritera, tokariera, indo-iraniera, anatoliera, armeniera, albanera, grekera, italikera, zeltera, germanikera, baltikera eta eslabiera. Hurrengo urratsa izan zen hizkuntza erromanikoen iturriak bilatzea erkaketaren bidez. Italikeratik oskera, umbrera eta bolskera sortu ziren. Eta bestaldetik, latinera. Eta hortik herri latinera. Baina herri latinerak adar desberdinak sortu zituen: italo-erromaniko adarra; galo-erromaniko adarra, eta hispano-erromaniko adarra. Ekialdeko herri latinerak dalmaziera (galduta dago), eta errumaniera sortu zuen. Italo-erromaniko herri latinerak, italiara, eta hortik Italian dauden oraingo dialektoak. Sardiniera, eta korsikera hizkuntza berezi bezala sortu ziren. Galo-erromaniko sustraiak hurrengo adarrak eman zituen: langue d'oc, eta langue d'oïl. Eta probentzalaria, kaskoinera, eta frantzeserak gaur dituen dialektoak. Katalanerak galo-erromanikoko sustraiak ditu, baina italo-erromanikoak ere bai. Aranera ere katalaneraren sustraiak ditu gehien bat. Hispano-erromaniko sustraiak. napar-aragoiera, gatzelera, astur-leonera, galiziera eta portugalerak sortu zituen. Hauek denak hizkuntza mailan jartzen dituzte mendebaldeko Europako Erromanistikan adituek. Baina hauen denen iturria ez zen izan latinera klasikoa, herri latinerak baizik, tokian tokiko biztanleak eman zioten forma hartu zuena. Espainiako lurralde desberdinetako biztanleak alkar-tzen diranean arabiarren kontra, sortzen dira mozarabiera, eta orain dauden banatasunak: Extremadurako banatasuna, Murziakoa, eta Andaluziakoa.

Eta germanieraren sustraiak begiratzen badugu, hurrengo hauek dira adarrak: ekialdeko germanieratik, gotikera sortu zen. Iparraldeko germanieratik, anbiolako iparraldeko germaniera. Eta hortik daniera, suediera, islandiera, eta norbegiera. Mendebaldeko germanieratik, anglo-frisoiara, eta hemendik, ingelesera zaharra eta oraingo ingelesera. Eta frisoiara zaharra eta oraingo frisoiara. Beste adar batek goi-alemaniera eman zuen, eta hortik oraingo alemaniera eta hortik geroago sortu

ziren dialektoak. Orain ere bizirik diraute, eta desberdintasun nabarmenekin. Dialekto baten hiztunek beste dialektoa ez dute ulertzen. Eta herri alemaniera eta hortik holandera.

Beti irakurri izan dugu fino-ugriera, finlandiera eta hungariera aipatzeko. Hauek biak indoeuropeeraren aurrekoak dira. Baina badute ahaidetasuna, Gyarmathi, hungariar hizkuntzalari batek frogatu zuen bezala XIX. gizaldian. Baina beti erkaketaren bidez. Datu hauek, H. Robins hizkuntzalariak argitaratu zituen 'Lingüística general' liburuan 526. orrialdean. Hortik hartu ditut. Baina hor agertzen direnak beste eranskin batzuk behar dituzte. Eranskinak beste iturri batzuetatik lortu ditut. Esaterako euskarara itzulita, Hizkuntzalaritza erromanikoaren Entziklopedia' osatzen duten hamar tomoak kontuan hartuta. Europako unibertsitate multzo bateko adituen artean idatzi dute lan mardul hau.

Hizkuntzaren euskarria

Beti gizakia da eta honek papiro, pergamino, ladrilu edo bestelako harrietan idatzita utzi dituen hitzak hartu behar dira erkaketarako. Europako egoera honela deskribatzen dute geologoek: Bestalde badakigu hemen orain 20.000 urte biztanle batzuk bazirela toki desberdinetan, batez ere kosta aldean, edo kostatik hurbil. Eta kontuan hartzeko beste datu bat: erromatarrak ibili ziren Euskal Herriko Hegoaldean eta Iparraldean. Baina ez da agertzen, bestelako tribu edo herrien erasorik hemengo biztanleen ordez Euskal Herriko lurren jabetza hartuz. Bestalde gogoratu behar da hizkuntza indoeuropearren testigantza Kristoren aurretik, 6.000 tik 2.000ra bitartean agertzen dela. Eta adituek esaten dute, euskara indoeuropear hizkuntzen aurretikoa dela.

Europar ezagutzen diren herri eta kultura historia aurrekoak Peñalver jaunak jasotzen ditu bere liburu bateko 20. orrialdean. Hemen jartzen dut orrialde horren argazkia.

EUSKARA NONDIK DATOR?

AÑOS ANTES DE NUESTRA ERA	PERIODOS GLACIARES	HOMBRES PRIMITIVOS		CULTURAS			
0	POSTGLACIAR	HOMO SAPIENS SAPIENS	HOMBRE ACTUAL	ROMANIZACION			
				EDAD DEL HIERRO			
1.000				EDAD DEL BRONCE			
2.000				CALCOLITICO			
3.000				NEOLITICO			
5.000				MESOLITICO			
8.500				WÜRM	NEANDERTHAL	GROMAGNON	SUPERIOR
15.000	SOLUTRENSE						
18.000	AURINACIENSE						
33.000	PALEOLITICO	MEDIO	MUSTERIENSE				
75.000		INFERIOR	ACHELENSE				
500.000			PEBBLE CULTURE				
1.000.000	MINDEL	Homo erectus					
	GÜNZ	Homo habilis					

Indoeuropearrak adituen iritziz, 6000. urte inguruan (Kristoren aurretik) hasi ziren Asiatik oraingo Turkiarantza etortzen eta Anatoliako lurraldeetan finkatzen. Iberotarrak 5.500. urte inguruan azaldu ziren European. Idazkeraren lekuko zaharrenek Urok, Mesopotamian, agertzen dira 3.500. urtean Kristoren aurretik. (H. Walter, 457. orrial.)

Oraingo Euskal Herrian indusketetan aurkitu dituzte gizaki batzuk bazebiltzala, orain 20.000 urte Kristoren aurretik. Koderen bat erabiliko zuten alkarrekin komunikatzeko. Bestalde lurralde hauetan eta inguruetan ibili ziren herriak ere ezagutzen dira: iberiarrak, zeltiberiarrak, erromatarrak, bisigodoak eta arabiarak, toki batzuetan. Baina hauen denen hizkuntzen eta euskararen arteko ahaidetasunik inork ez du aurkitu orain arte behintzat. Gogoratu behar dugu gainera, Asiatik Ipar Amerikara triburen batzuk joan zirela eta gero kontinente osoa zabaldu. Eta ekialdeko Asiatik Ozeaniara ere bai.

Lakarra jaunak erkaketaren arauak zuzen jarraituz, ametsak eta legendak alde batera utzi nahi ditu eta hipotesi batzuk sortu: ‘...en algun momento, más allá de los siglos finales de la Era anterior en que sitúa el protovasco reconstruido por Mitxelena, las raíces, las preposiciones y los prefijos en +d fueron, son, sin duda, sumamente productivos, quizá tanto o más que los morfemas correspondientes a cualquier otra oclusiva o sibilante anterior. Hau hipotesi bat da, arrazoizkoa, baina hipotesia, forma idatziak agertzen ez diren bitartean. (Oihernarte, 23, 321. orrial.) Esaterako *dan> edan, jan, *ardano; *dar> adar, jarri ‘poner’, etabar orrialde horretan bertan. Dardara > *adar.

*dats > adats, ‘melena’; lats ‘torrente rápido’; *den > eden ‘terminar’, edeki ‘quitar’, erein ‘sembrar’; *din ‘convertirse en, auxiliar irreal intrans.’; jin ‘venir’; dol> odol ‘sangre’; *don > lohi ‘cuerpo, barro’: *dor > lortu ‘conseguir’; iltze ‘clavo’; *dur > lur ‘tierra’, [...] iraurri ‘hacer las camas al ganado’; *duts >

eutsi 's'tener'; *dutz > utzi 'dejar', luze 'largo'. (Oihenart, 23, 321). Hitz hauek gaurko euskeran badaude egon, baina jauzi handi samarra da eta ezin dugu jakin oraingoz behintzak, jauzi hori gertatu den edo ez.

'Desde hace ya más de una década venimos defendiendo la necesidad de revisar, ampliar y profundizar la reconstrucción estándar de Mitxelena [...] mediante trabajos puntuales u otros de mayor alcance. [...] Más precisamente lo que se defiende es la posibilidad de llegar a estados de lengua más arcaicos que el protovasco clásico dibujado por Mitxelena para la lengua de los últimos siglos de la Era anterior, basándonos en la primera – A new interpretation of the material on hand de las cuatro vías que Haas (1969) presentaba hace casi cuarenta años como razones para reconsiderar anteriores reconstrucciones. Corresponde al análisis de la forma canónica de los morfemas y, en concreto, a la teoría de la raíz monosilábica el núcleo del paradigma reconstructivo aquí adoptado. Los resultados obtenidos hasta ahora no son, desde luego, definitivos, ni alcanzan la totalidad del léxico, de la fonología, de la morfología y de, particularmente, la sintaxis protovascas, pretensión no sólo excesiva sino probablemente inútil y contraproducente para el avance de la investigación; creo, sin embargo, que conocemos más y mejor sobre la evolución prehistórica de la lengua que hace unos pocos años...' (Oihenart, 23, 278-279).

Lerro hauek idatzi ditut gogorazteko hizkuntzen erkaketa nola egiten den, edo behintzat lorratz batzuk izan ditzan irakurleak, orain ere ez errepikatzeko, lehenagoko garaietan egon diren hutsuneak. Erkaketa egiteko urratsak aurkitu eta zehaztuta daude, orain dela pare bat gizaldi. J. Andoni Lakarra jaunak, protoeuskara eraiki nahi du, erkaketaren legeak zuzen jarraituz. Asmo hori inolaz ere baztertu gabe, gertatzen zaiguna da, Kristoren garaitik eta 1000. urtera arte euskara nolakoa zen egi bihurtu nahi luke Lakarra jaunak. Penagarriena bera-

rentzat eta euskaldun guztiontzak ez daukagula ia ezer idatzi-rik orduko euskarari, 1. urtetik 1000. urtera bitartean. Bakarrik hilarrietako izen batzuk daude, ikerlari honen eta euskaldun guztion zoritxarrerako. Horregatik lan horren emaitzak hipotesi multzo bat izango dira. Baina hori bai, behingoz hizkuntzalaritza erkatuaren bidetik joango da, bestelako ipuin, mito eta ametsak alde batera utzita.

Lantxo hau idatzi dudanean 50 urte bete dira, Amorebieta-Etxanoko 'El Carmelo' ikastetxeak ofizialtasuna lortu zuenetik. Hantxe ikasi nuen nik, nire baserriko hizkuntza horrek bazuela gramatika eta hiztegi bat, gerra aurreko Diputazioak eraikitako auzo eskola baten 'hable en cristiano' behin baino gehiagotan entzun ondoren. Eta hango oinarriekin geroago ikasi nuen 6.900-7.000 hizkuntza daudela munduan, eta adituek nolako ikerketa lana burutu duten gizaldietan, hizkuntza indoeuropearren sustraiak bilatzen. Hiztunak mila izan edo miloi morderoa, gizadiaren historia ezagutzeko tresnak dira.

Irakasleen artean Lovainan eta Vienan ibilitako Berrizko seme bat ere izan genuen irakasle bezala. Karibe-kuna indiarren deskribapen eder bat idatzi zuen, geroago Europako zenbait antropologok goraiatu zutena. Orain horko ikasle batzuk sendagile lana egiten dute, beste bat Leioako Medikuntza fakultatean irakasle da, minbiziaren kontuetan aditu bat badago Donosti aldean, eta baten batek Labayru Ikastegian lana egiten du euskal gaitetan. Besteren bat kirol kontuetan zuzendari dago sail baten Euskal Herri honetako lurralde baten. Uste ez nuen oztopoak sortu zaizkit, gizakienak, eta elementuenak, lan hau eta beste zabalago bat amaitzeko, baina bideratu ditut gauzak burutzeko, eta hemengo gizaki xumeen kultura ezagut arazteko. Herritar xume eta kristau batzuk lagundu didate.

Hurrengo liburuak erabili ditut lantxo hau osatzeko:

ARENS, Hans, 1976, 'La lingüística' Gredos, Madrile

BYNON, Theodore, 1981, 'Lingüística histórica', Gredos, Madrile

FABRE, Alain, 1998, 'Manual de las lenguas indígenas americanas', Lincom Europa, Munitx (Ez dut ulertzen zergatik Munich idatzi behar den euskaraz [Munduko Leku izenak liburuan]. Ch gaztelerazko grafiak, eta tx grafiak berdin antzeko soinua dute. Bestela errazena, bakoitzak bere hizkuntzan duen grafia litzateke.

GORROCHATEGUI, Joaquín, 1984, 'Onomástica indígena de Aquitania', E. H. Unibertsitatea.

LAKARRA, Joseba Andoni, 'Protovasco, munda y otros: Reconstrucción interna y tipología holística interna', Oihenart, 2006, 21. zbka. 229-322.

“ “, 'Temas para un prólogo: Forma canónica, tipología holística diacrónica y reconstrucción del protovasco', 2008, Oihenart, 23. zbka, 277-347.

MEILLET, Antoine, 'La méthode comparative en linguistique historique', Oslo-Paris, 1925.

MENDEZ PIDAL, Ramón, 1973, Gramática histórica del español, Espasa-Calpe, 14. argital.

MITXELENA, Luis, 1990, Gipuzkoako Foru Aldundia, 'Fonética histórica vasca', 2. argital.

“ “, Lenguas y protolenguas, Salamanca, 1956.

PEÑALVER, X., 2009, 'Sobre el origen de los vascos', Txertoa, Donostia, 2. argital.

ROBINS, R. H., 1995, 'Lingüística general. Estudio introductorio', 4. argital.

“ “, 2000, 'Breve historia de la lingüística', Cátedra, Madril.

RODRIGUEZ ADRADOS, 2008, 'Historia de las lenguas', Gredos, Madril.

WALTER Henriette, 1994, L'aventure des langues en occident, Robert Laffont, Paris.

J. M. Etxebarria L.